

Nanoipuin lehiaketa



2023

oinarriak

1

Lehiaketa honetan euskalduntzen ari den Sakanako edozein pertsonak har dezake parte, baita Mintzakide programako parte-hartzaileek ere.

2

Hiru maila ditu lehiaketak:

- > 1. mailan A1 eta A2 mailetako ikasleek har dezakete parte.
- > 2. mailan, berriz, B1 mailako ikasleek.
- > 3. maila B2 eta C1 mailetako ikasleendako da.

Mintzakide programako parte-hartzaileek duten ezagutzaren pareko mailan hartuko dute parte.

3

Lanak banaka egingo dira, eta egile bakoitzak nahi beste testu aurkez ditzake. **Nanoipuin bakoitzak 150 hitz izango ditu gehienez.**

4

Lanak euskara hutsean idatziko dira eta argitaratu gabeak, jatorrizkoak eta beste edozein lehiaketetan saririk jaso gabeak izanen dira.

5

Indarkeria, sexismoa, arrazakeria edo bestelako eskubide urraketak sustatzen dituzten lanak ez dira onartuko.

6

Lanak Internet bidez bidaliko dira **sakana-mank.eus** webgunetik. Webgunearen hasierako orrian esteka bat paratuko da, *Euskara Zerbitzuko lehiaketak* izenburuaz. Bertan izena eman ahal izanen da formulario bidez, eta oinarriak kontsultatu ahal izanen dira ere bai.

7

Sakanako Mankomunitateak izendatuko du epaimahaia. Epaimahaiaren epaia apelaezina izanen da.

8

Lanak aurkezteko azken eguna **apirilaren 5a** izango da.

9

Sariak eman gabe gera daitezke, baldin eta obrek ez badute behar bezalako merezimendurik. Era berean, sariak *ex aequo* moduan banatu ahal izango dira lan batzuen artean.

10

Aurkeztutako lanak Sakanako Mankomunitatearen esku geldituko dira. Mankomunitateak lanak argitaratzeko aukera gordeko du, paperean zein webgunean, betiere egilearen izena adieraziz.

11

Aurkezten diren lan guztien egileek oroigarria jasoko dute. Maila bakoitzeko saridunek 150 euroko txartel bana jasoko dute Sakanako liburu dendetan erabili ahal izateko.

12

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar berarekin.

13

Sakanako Mankomunitateak bermatzen du datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudia beteko duela, zeina Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotzen baita. Orobat, pertsona fisikoen babesari dagokionez, 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduan ezarritakoa beteko da.

Sakanako Mankomunitatea da lehiaketa kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalen arduraduna. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Parte hartzaileek eskubidea dute datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko —zuzenak ez badira— eta horiek ezabatzeko erregistro orokorrera edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria **sakana-mank.eus** webgunean daude.

14

Ahal izatera, sari-ematea berariaz antolaturiko ekitaldi batean egingo da. Sakanako Mankomunitateak ekitaldian ateratako argazki eta bideoak zabaldu ahal izanen ditu.



Mank
SERIES